

mendia &gt; IBILBIDEAK

# Getxo eta Plentziaren arteko kostaldea

Bi herriak lotzeko ibilbideak zer ikusi eta zer ikasi asko eskaintzen dio ibiltariari: monumentuak, labarrak...

## ALBERTO ERRAZTI

Gaurko txangoa ez da bat-batean burura etorri zaidan ideia berri-tzailea. *Zor zaharra, zor txarra* diosku Gotzon Garatek bere *Atsotitzak* liburuan, eta gaurko kontua aspalditik kitatu behar nuen. Bilbao Alpinokoei 1952an egindakoa oinarritzat hartuta, 1986an Durangoko Alpino Tabira mendizale taldekoek *Bizkaiko bira* izango zena diseinatu zutenean, hainbat zalan-tza izan ziren nondik norakoak erabakitzeke orduan. Hori zela eta, 1990ean nire liburuaren izenburuari *GR-123 eta aldakiak* gehitu zitzaion, etapa batzuetan balizko ibilbide batzuk proposatzen genizkiolako irakurleari. Etapa bakarrean ez nuen papereratu buruan zebilkidan beste aukera bat: Getxo eta Plentziaren artekoan. Kostaldeko besteetan ez bezala, ibilbidea ez ziohoan labarren aldamenetik, baina arrazoi logikoa zen: Munarriko landa, Santa Marina eta Ganeta tontorretatik igarotzea.

Egin berri dudun txangoak liluratu utzi nauenez gero, mamu zaharrak uxatu behar direlakoan, zuenganatzea pentsatu dut, zeuek ere goza dezazuen kostaldeko baster hauetaz. Gainera, abantailak baino ez ditu aipaturiko ibilbideak: oinez nahiz bizikletaz egin daiteke —Portuzarra eta *Sopelmarreko* eskailera albotik ekiditea duzue—; iturri ugari —hondartzetako aparkaleku guztietan—; ibiltari mota askori begira, bide erdia baino gehiago atonduta baitago; bertako landare eta animaliei buruzko informazioa irakurtzeko panelak; labar tente-tentek, harresiak balira bezala; monumentuak ikuszeko aukera —Bizkaia Zubia, E.Txurrukaren eskultura, Lezama-Legizamon jauregia, Algortako Portuzarra, Aixerrota eihera, Galea gotorlekua eta itsasargia—; tarteko udalerriak ezagutzea —Sopela eta Barrika— eta zelán ez, inguru honetako hondartza guztiak ere bai.

**HONDARTZAK EZIN AHAZTUZ.** Uda iluna izan zelako edo ez dakit zergatik, baina udazkenean egonda ere,



Barinatxa hondartzatik Gorlizko itsasargirainoko kostaldea. ALBERTO ERRAZTI



dugu. Aldats honetako arrantzale etxeak ederrak dira, benetan, eta izenak liluragarriak (Elejaldena, Peresiena, Ramosena...). Modernotasunaren itsasoan arrantzaleen uhartetxo atzean utzita, Usategui ostatu aldamenean Arrigunaga hondartzara jaitsiko gara. Hurrengo gainean, Galea Punta ezagunean, XVIII. mendeko Aixerrota eihera eta gotorlekua ikus daitezke, baita itsasargia zein golf zelaia ere. Aurrerantzean, etxeen ordez labar zorrotzak eta hareatza ugari aurkituko ditugu. Askorriko lehen horma artesek Gorrondatza hondartza hesituko dute eta gero Barinatxan Getxotik ekarritako ibiltokia amaituko da.

Sopelako Arrietara-Atxabiribil leko pasealeku amaieratik goiko muino aldera hurbilduko gara, eta tarte luzean bidezidorrak berak gidatuko gaitu, Sopelmar etxe multzo osteko Kukullumendi muinotik azpiko Meñakotz harrizko itsasarte aldera lehenengo eta Barrika udalerrian sartuta, Kurtziomendi gainetik Barrikako hondartzara gero. Bustintzako geodesikora heldutakoan, Muriolako baster nudistara jaitsi eta zubitxotik gora joan beharko dugu herrigunera, Barrikasoko bidezidorrak sasiz josita baitaude. Errepide alboko espaloitik Plentziako metro geltokira helduko gara, J.Manterolaren zubi aldamenera, hain zuzen.



Bizkaia zubia. ALBERTO ERRAZTI

## Bizkaia Zubia

Eskegia izatea da bere ezaugarriak nabarmenena, munduko lehen zubi eskegi eta mekanikoa, hain zuzen, eta horrexek erraztu dio 2006ko udan Unescok Gizateriaren Ondare izendatu izana. XIX. mendean ezinezkotzat hartzen zen horrelako zubia eraikitzea; eta horrexegatik izan zen hainbeste zalan-tza, eta behin baino gehiagotan *eskegita* geratzeko arriskuan izan zen egitasmoa. Aurka izan zituen Alberto Palaciok hasierako txosten teknikoak, aurka akziodunak, aurka indusketen emaitzak, eta, gainera, bere laguntzaile Alonso Bilbao zubigilea hil egin zen, istripu baten ondorioz. Izena ere zalan-tzanipini dute zenbait ezjakinek abesti baten erruz Portugaleko Zubia delakoan. Arazoak arazo, 1893ko uztailaren 28an inauguratu zen zubia, eta gainaldea leherrazti zutelako 1937tik 1941era izan ezik, egun baten ere ez du huts egin bere joan-etorrian.

*Abiatu baino lehen...*

**SARTU**

Eguraldiak eragina du zure bizitzan. Toki bakoitzeko eguraldiaren berri zehatza izatea oso mesedegarri izan liteke zuretzat. Gure herriko informazio meteorologiko guztia aurkitzeko

[www.euskalmet.net](http://www.euskalmet.net)

**euskalmet**  
euskal meteorologia agenzia

aurreru doan herria

EUROA JAILURATUTAKO GOBIERNO VASCO